

Idenon
bizi
tzak
erdigunean.

MATERIAL KUTXA

Material Kutxa honetan dagoen edukia, Denon Bizitzak Erdigunean prozesuan zehar jasotako edukiekin osatu da, batez ere, 2023ko apirilaren 23an antolatu zen Asanblada Feminista Nazionalean sistematizatutako aktetatik.

Momentuz, edukia euskaraz eta gazteleraz publikatu da, inork beste hizkuntza batera itzultzeko aukera baldin badu, antolakuntza aldetik asko eskertuko da.

Kontaktuan jartzeko: bizitzakerdigunean@gmail.com

Dokumentu honetan, eduki hauek daude atxikituta:

Denon Bizitzak Erdigunean prozesua:

- Denon Bizitzak Erdigunera prozesuaren azalpena
- Greba Feminista Orokorren argumentarioa
- Prozesuaren kronograma

Eztabaidarako dokumentua:

- Egoeraren analisia
- Aldarrikapen Taula

Tresna ezberdinak:

- Ekintza ezberdinetarako proposamenak
- Herrietan zaintza lanen arloen diagnostikoa egiteko ariketa proposamena
- Aldarrikapen Taulako edukiak lantzeko ariketa proposamena
- Espazio mixtoetarako dekalogo proposamena
- Eragile ezberdinekin harremana egiteko testu proposamena

Denon Bizitzak Erdigunean prozesuaren azalpena:

Pandemia lehertu zenean MFko eragile eta kide ezberdinek koordinadora bat sortu genuen zaintzen problematika agendaren erdigunean jartzeko. Hasieratik koordinadoraren anbizioa azken urte hauetan teorizatutakoa eta hausnartutakoa kalera ateratzea eta lurreratzea izan da. Horrela, 2022ko otsailean Gasteizen jardunaldiak egin genituen:

- Zaintzen inguruko ulerkera komun baterako hurbilpen bat egin genuen.
- Zaintza sistema publiko-komunitario baten lehen ardatzak marraztu genituen.
- Aldarrikapenak azaleratu eta urgentziak identifikatu genituen.
- Mobilizazio ziklo baten beharra markatu genuen.

Horren ostean, 2022ko udazkenean herrialdeetako asanblada irekiak egin genituen eta bertan, Zaintzen inguruko **AKORDIO BAT** behar genuela markatu genuen, hau sozializatzeko **GREBA FEMINISTA OROKOR** bat agendan jarritz.

Beraz, Denon Bizitzak Erdigunean dinamika otsailean aurkeztu zen, epe ertain/luzeko prozesu gisa irudikatuz, herri honetan trantsizio sozial bat eragiteko anbizioarekin.

Anbizioa herri akordio bat osatzea da. Horretarako, Euskal Herriko eragile soziosindikalen aliantza, laguntza eta elkarlana behar dugu.

DENON BIZITZAK ERDIGUNEAN jartzeko herri akordio bat osatzera goaz horrekin euskal eta nafar gobernuak interpelatzeko. Herri akordio horren txapela, zaintza eskubide kolektiboa izango da.

Aldarrikapen horiekin greba orokor feminista deituko dugu, gure eskaerek oihartzuna izan dezaten.

Gerora, negoziaketa/eraikuntza fase bat irudikatzen dugu, aldarrikapen horiek materializatu nahi ditugulako: hau da, **HITZARMENAK** osatu nahi ditugu. Pausoz pauso joango gara, urgentziak identifikatu eta aldaketak proposatuz. Beti ere, herri akordioa ipar izanda.

Greba Feminista Orokorraren argumentarioa:

ZERGATIK GREBA?

Greba lanuztea da, lan ez egitea, baina greba hau hori baino konplexuagoa da.

Greba egunak aldarrikatzeko balio du, baina **guk prozesu osoari begiratuko diogu**. Greba honetan antolakuntzan, aktibazioa, saretzea, politizazioa, interpelazioa eta harremanak jarri nahi ditugu oinarrian. Greba bera, prozesu honen inflexio puntu bat izango da, ez da lehenengoa ezta azkena izango. Helburua ez da greba eguna bera, honen aurretik eta ondoren egingo dugun lana baizik.

Denok ez dugu greba egiteko eskubidea. Lan batzuk ezin dira egiteari utzi. Hortaz, zaintza lanen greba ere deitzen dugun arren, badakigu ezinezkoa dela erabateko lanuztea egitea. 'Kontraesan' horren potentzialitatea erabili nahi dugu: **zaintzen ezinbestekotasuna agerian jarri eta nork eta zein baldintzatan zaintzen duen azaleratzeko**.

ZERGATIK FEMINISTA?

Greba feminista, erradikala da. Sistema kapitalista, heteropatriarkal, kolonialista eta arrazista salatuko dugu. Pribatizazioaren arduradunak interpelatu eta seinalatu behar ditugu. Eskuineko erakunde neoliberalak gure mezuez apropiatzen eta diskurtsoak husten ari direla salatuko dugu.

Zaintza sektoreko langileekin aliantzak egiteko erabiliko dugu prozesu hau, are gehiago orain greban daudenekin: mugimendu feministak haien borrokak babesten ditu eta sindikatuek zein langileek egindako bide feminista aitortu; eta langileentzat modu bat izan daiteke mugimendura hurbiltzeko eta haien borrokari beste dimentsio bat emateko. **Zaintzaileak politizatuz jendarte politizatuko dugu**.

ZERGATIK OROKORRA?

Mugimendu ezberdinekin aliantzak sortzera goaz. Zaintza eskubidearen aldeko borroka, jendarte osoari begirakoa da, denon bizitzen inguruan ari gara. Denok hartu behar dugu ardura aldaketak emateko.

Hala ere, lidergoa mugimendu feministak izango du eta horretarako bermeak jarriko dira hasiera batetik tresna ezberdinekin: espazio ez mixtoak, jarrera dekalogoak eta bestelako iruditegi zein moldeak.

Zaintzaren ulerkera zabala garatzen ari gara, ahalik eta jende gehien prozesuarekin interpelatua sentitzeko eta grebaren subjektu sentitzeko. Gainera, borrokako subjektua prozesuan bertan sortzen ari da, modu desberdinetan parte hartzeko aukerak egongo dira. Dena den, aniztasuna kudeatzea gatazkatsua izango da. Zapaldu eta zapaltzaile posizioak errebisatu beharko ditugu etengabe, bakoitzaren parte hartzea eta lekua zein den definitzeko.

Prozesuaren kronograma:

	APIRILA / MAIATZA / EKAINA	UZTAILA/ ABUZTUA	IRAILA / URRIA	AZAROA / ABENDUA	URTARRILA/ OTSAILA/ MARTXOA
ESPA- ZIOAK	<p>-MFk lideratutako ekipoak sortzen hasi herrietan. -Asanblada lokalak indartu.</p> <p>-Prozesua herrietan aterrizatu eta espazio mistoak sortzen hasi (horretarako, dekalogoak).</p> <p style="text-align: right;">Aldarrikapen taula itxi</p>	<p>PROZESUAREN ETA GREBA EGUNAREN PROPAGANDA</p>	<p>- Espazio mistoak sortu -Asanbladak berraktibatu -Edukien lurreratzea herrietan</p>		
ALIAN TZAK	<p>-Zaintzarekin lotutako sektoreekin harremanak egin.</p> <p>-Eragile mistoetako emakume*ekin.</p> <p>-Mahai intersindikala sortu maila nazionalean</p> <p style="text-align: right;">Beste mugimendu batzuekin harremana egin.</p>	<p>PROZESUAREN ETA GREBA EGUNAREN PROPAGANDA</p>	<p>Beste mugimendu batzuekin harremana egin.</p>		
EKIN TZAK	<p>M28: hauteskundeak. Interpelazioak, tokian toki + Naf. parlamentuan ekintza proposamena.</p> <p style="text-align: right;">GREBA EGUNA PUBLIKO EGIN</p>	<p>PROZESUAREN ETA GREBA EGUNAREN PROPAGANDA</p>	<p>-Ekimen nazionala: deszentralizatua -Ekimentzarekin tentsioa sortu greba egunera arte -instituzioak interpelatu</p>		<p>Manifa nazionala M8aren bueltan?</p>
BES- TERIK	<p>M24: feminismo antimilitarista ekintza proposamena</p>	<p>PROZESUAREN ETA GREBA EGUNAREN PROPAGANDA</p>			

FEMINISMOTIK ERAIKI NAHI DUGUNA:

Zaintza, eraldaketarako tresna.

Zaintzarako eskubide kolektiboaren aldeko apustua egin nahi dugu; hau da, pertsona guztiek, bizi osoan zehar, askatasunez eta konpromisoz, zaintza eskaini eta jasotzeko eskubidea.

Zaintzaren egungo antolamendu soziala eraldatu nahi dugu, eta horrek bi planotan pentsatzea eta aldaketak eragitea suposatzen du:

Premiei erantzutea, hau da, gaur egun prekarioenen eta kolapsatuta dauden egoerei aurre egitea.

Epe luzera begiratzea eta bizitza erdigunean jarriko duen sistema sozial bat imajinatu eta definitzea, sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala gaindituko dituen.

Zaintza sistema publiko-komunitario baterantz:

Zaintza lanen aitortzarik eta banatzerik eza, zaintzaileen lan baldintza kaxkarrak eta hortik eratorritako arretaren kalitate txarra dira zaintza-ereduaren aldaketa eskatzen duten hiru elementu nagusiak.

Beharrezkoa da zaintza-lanak demokratizatzea: Gure ustez, publiko izateak zaintzarako eskubidea bermatu behar du (eskubide sozial gisa ulertuta), hau da: sistema publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak guztion eskura egon behar dira. Publikoak unibertuala eta bidezkoa izan behar du. Arlo publikotik finantzaketa eta kalitatea bermatu behar dira. Gainera, merkantilizatu gabeko publikoa izan behar du.

Komunitateaz aritzea bizitza komunaren logikan eraikitzearen aldeko apustua egitea da, zaintza eskubide eta erantzukizun kolektibo gisa ulertuz. Baina komunitateak ez du bete behar administrazioek estali gabe uzten duten hori. Komunitatea tokian toki sustraitzen da, eta udalgintzaren bitartez publikoarekin elkarlotu daiteke. Era berean, sektore publikoan zuzenean parte hartzeko mekanismoak behar dira.

Aurreko hau, abiapuntu izanda, hurrengo orrialdeetan momentuz jaso ditugun aldarrikapenak daude. Batetik, egungo erregimen bidegabearen aurrean eraldaketarako aldarrikapenak eta bestetik, zaintzaren ulerkeraren feminista batetik behar dugun antolatzeko sistema lortzeko bidean ditugun aldarrikapenak:

ZAINZTA ERREGIMENA IRAULI

Pribatizazioaren aurrean kolektibizatu

Zaintza lana duindu eta profesionalizatu

Zaintza-eredu emantzipatzailea

SISTEMA PUBLIKO KOMUNITARIOANTZ

Autonomia sustatzea eta mendekotasun-egoerei arreta egitea (zahartzea eta dibertsitate funtzionala)

Haurtzaroa

Zaintza bizitzan zehar: modu zabalago batean pentsatzeko leihoa zabalik utziko duen ikusmira, oraindik nola definitu ez dakigun hori garatzeko espazioa.

Zaintza, lurra eta lurraldea.

Guztion artean goazen aldarrikapen horiek osatzen, hausnartzen eta batez ere, amesten!

Ekintza ezberdinetarako proposamenak:

- Acudir a sectores identificados como estratégicos para socializar el conflicto y conseguir parar la producción el día de la huelga: se plantea ofrecerse a acudir a alguna asamblea en los centros de trabajo que se identifiquen como estratégicos para poder parar la producción.
- Se propone socializar en espacios estratégicos en periodos vacaciones en donde se sabe que las THI se desplazan para seguir realizando su trabajo (Zarautz, Deba, etc..)
- Alianza con los medios de comunicación.
- Campaña comunicativa para/ por las mujeres que no pueden salir el día de la huelga. (Videos testimoniales de sus situaciones antes y durante el día de la huelga)
- mapeoak: de cuidadoras, TH, THI; lekuan lekuko errealitateak nahiz beharrak identifikatzeko. Gu joan espazioetara/eremuetara...modu berriak topatu.
- Herrietan aterratu: bertako zerbitzuen berri izan, seinalatu ahal izateko
- Fase bakoitzerako, irizpideak, leloak, beste asanblada batzuk...
- Ideia moduan: bideoa (nola zaindu duzu? Nola nahi duzu zaindua izatea? Galdetzea emakumei).
- Se plantean acciones durante el proceso en lugares emblemáticos para una interpelación directa (edificios de la SS, edificios de extranjería,etc.)
- Crear expectación antes de las acciones en RRSS, grabar acción y socializar la acción mediante RRSS. (extranjería, SS)
- Modu suntsitzaileetan ere aldarrikatu behar dugu, markatu behar ditugu zeintzuk diren egoera honen erantzule: gizonak, instituzio, enpresak markatu behar ditugu.
- Acciones: una por mes y por sector/ ámbito afectado que no podrán salir a la huelga ese día (TH, THI, Sectores sanitarios y sociosanitarios)
- Uda agitprop eta dirua lortzeko erabili beharko genuke.
- Bilera/elkargune nazionaletarako beharra ikusten da. Baina hauek momentu puntualetan egitea. Honela, herriko asanbladei pisua eman nahi zaie. Elkargune nazional hauek duten elkarbatzeko potentzialtasuna ere baliatu behar da.
- Militante eta ez militante espazioekin amaitu behar dugu ibilbide honetan. Praktika politiko parte hartzaile anitzak eskaini, jende askorentzat erosoak izan daitezkeenak. Beste kultura militanteetako jendea etortzeko, jendea ezagutzeko ere tresna izan daiteke. Kafeak, merendolak...
- Askotan gure egiteko modu konkretuetan geratzen gara eroso gaudelako, eta horrek jendearen parte hartzea mugatzen du.

Baliabideen mapeoa | Mapeo de recursos

Mugimendu Feministak mobilizazio prozesu bat aktibatu du. Zaintzak irauli nahi ditugu dena aldatzeko. Egungo zaintza erregimen kapitalista eta patriarkala eraldatu nahi dugu.

Auzo eta herrietatik abiatu nahi dugu. Horregatik, tokian tokiko errealitatearen erradiografia egitea proposatzen dugu. Helburua tokiko zaintza-baliabideak zeintzuk diren aztertzea da, jakiteko zer den faltan duguna, hori bera aldarrikatu ahal izateko.

Ariketa hau egitea, aldi berean, sartzeko modu bat izango da. Izan ere, diagnostikoa egiteko tokiko pertsona eta eragileak gonbidatu daitezke (berdintasun teknikaria, gizarte langileak, esku-hartze komunitarioa egiten duten taldeak, etxeko langileak e.a.). Elkarrekin hausnartuz eta kontzientzia hartuz, zaintza grebarako aliantzak artikulatuko ditugu, urratsez urrats.

Erradiografia osatzeko, dokumentuan ageri diren eta herri-auzoan ditugun zaintza-baliabideak "X" batekin markatuko ditugu. Zehaztu baliabidearen izena eta kontaktua, hura ezagutuz gero, eta markatu komunitarioa eta publikoaren ikonoa.

Eskerrik asko prozesu honen parte izateagatik, bagoaz aurrera!

El Movimiento Feminista ha activado un proceso de movilización. Queremos revolucionar los cuidados para cambiarlo todo. Queremos transformar el actual régimen capitalista y patriarcal de cuidados.

Queremos partir de barrios y pueblos. Por eso proponemos hacer una radiografía de la realidad local. El objetivo es analizar cuáles son los recursos de cuidados locales para saber qué es lo que nos falta para poder reivindicarlo.

La realización de este ejercicio será, a su vez, una forma de tejer redes. De hecho, para la realización del diagnóstico se puede invitar a personas y agentes locales (técnica de igualdad, trabajadoras sociales, grupos de intervención comunitaria, empleadas de hogar, etc.). Reflexionando y tomando conciencia juntas articularemos, paso a paso, alianzas para la huelga de cuidados.

Para completar la radiografía, marcaremos los recursos de cuidados que figuran en el documento y que tenemos en el barrio-pueblo con una "X". Especificítese el nombre y el contacto del recurso si se conoce y marque el icono de comunitario o público.

¡Gracias por ser parte de este proceso, vamos hacia adelante!

POBLACION A QUIENES VA DIRIGIDO:

- ① Infancia y adolescencia
- ② Juventud
- ③ Personas adultas
- ④ Personas mayores
- ⑤ Intergeneracional

TIPO DE RECURSOS:

- Asociativo, iniciativa, economía social y solidaria...
- ▲ Institucional

ACTIVIDAD:

[Diversidad funcional/discapacidad]

- Colegio de educación Especial

- Centros de discapacidad psíquica/física/sensorial...

[Salud y bienestar]

- Centro de Salud

- Centro de atención a la salud sexual y reproductiva

- Unidades de barrio. Trabajo social

- Residencias dirigidas a personas mayores, con dependencia ligera o moderada

- Centros de día (personas mayores y salud mental)

- Pisos tutelados

[Deporte]

- Clubs deportivos

- Polideportivos

[Cultural]

- Biblioteca Pública

- Centros culturales

- Sociedades culturales

[Acción social]

- Asociaciones juveniles (especificar para que y quienes)

- Asociaciones, club de jubilados y jubiladas

- Comisiones, asociaciones de fiestas

- APYMAS

- Asociación de vecinos y vecinas

- Servicio de Acción preventiva comunitaria

[Educación]

- Separar públicos, concertados y privados

- Centro educación infantil 0/3

- Centro de Infantil y primaria

- Centro de educación secundaria obligatoria

- Centro de Educación secundaria y Bachiller

- Centro de formación profesional

[Activismo]

- Movimiento asociativo juvenil

- Colectivos y movimiento feminista

- Asociación promoción de la diversidad cultural

- [Igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres]

- [LGTBI+]

NOTAS:

Espazio mixtoetarako dekalogo proposamena

Ondo etorri eta mila esker prozesu honenta parte hartzeatik. Pozgarria da, kide eta eragile ezberdinekin momentu hau konpartitzea. Datozen hileei begira elkarrekin lan egingo dugu, giro onean eta elkar aberasteko jarrerarekin. Horretarako, Euskal Herriko Mugimendu Feministatik hainbat apunte identifikatu ditugu:

-Prozesu honetan, zaintzaileen eta emakumeen* parte hartzea lehenesten da. Inguruan, zaintzailerik baldin baduzu, asanblada eta ekintza egunetan eskeini zure burua lan horiek egiteko.

-Euskal Herriko herri zein auzoetan asanblada feministak antolatu dira. Prozesu hau feminista izateko bermeak jartzen ari gara, horrekin gauza asko esan nahi ditugu. Mugimendu feministaren lidergotza ezinbestekoa izango da horretarako.

Herri honetan ere, asanblada feministetan elkartu gara. Hilabeteak daramatzagu bertan lanean, prozesuari forma ematen, espazio nazionalekin koordinatzen, gure arteko antolakuntza zehazten, saretze lanak egiten eta eskuartean ditugun edukiekin formatzen. Asanblada feminista hori konstantea izango da, hau da, prozesuak aurrera egin ahala, espazio ez-mixto bezala funtzionatuko du.

Asanblada feminista horrek, beto feministarako eskubidea izango du. Hau da, prozesuan zehar puntualizazio , zein erabaki batzuetarako neurri feministak ezartzeko aukera izango du.

-Ahalik eta jende gehien antolatu, formatu eta parte sentitzea nahi dugu. Horretarako denon ahalegina eta jarrera aktiboa ezinbestekoa izango da. Horri begira, irizpide ezberdinak adostea beharko dugu: hizkuntzaren kudeaketarekin, denbora eta espazioaren kudeaketarekin, jarrera zapaltzaileekin...

-Espazio hau segurua izatea nahi dugu, beraz ez da inolako erasorik onartuko.

-Gutako bakoitzak botere handia du. Beraz, ez dezagun indar hori albokoa, zapaldu, isildu, gutxietsi, umiliatu edo lotsarazteko erabili.

-

Eragile ezberdinekin harremana egiteko testu proposamena

Zer da Denon Bizitzak Erdigunean dinamika?

Pandemia lehertu zenean MFko eragile eta kide ezberdinek koordinadora bat sortu genuen zaintzen problematika agendaren erdigunean jartzeko. Hasieratik koordinadoraren anbizioa azken urte hauetan teorizatutakoa eta hausnartutakoa kalera ateratzea eta lurreratzea izan da. Horrela, 2022ko otsailaren 19 eta 20an Gasteizen MFrentzako jardunaldi batzuk antolatu genituen. Bertan hurrengoak ondorioztatu genituen:

- 1.Zaintzen inguruko ulerkera komun baterako hurbilpen bat egin genuen
- 2.Zaintza sistema publiko-komunitario baten lehen ardatzak marraztu
- 3.Aldarrikapenak azaleratu eta urgentziak markatu
- 4.Mobilizazio ziklo baten beharra markatu

Horren ostean, 2022ko udazkenean herrialdeetako asanblada irekiak egin genituen eta bertan, Zaintzen inguruko akordio bat behar genuela markatu genuen, hau sozializatzeko greba feminista orokor bat agendan jarritz.

Beraz, Denon Bizitzak Erdigunean dinamika otsailean aurkeztu genuen, epe ertain eta luzeko prozesu gisa irudikatuz, herri honetan trantsizio sozial bat eragiteko anbizioarekin. Horretarako, martxoaren 8an inflexio puntu bat markatu genuen eta Euskal Herriko herri eta txoko gehienetan zaintzarako eskubide unibertsalaren beharra agendaren erdigunean kokatu genuen. Horrekin batera, greba feminista orokor baterako bidea eraikitzekeo anbizioa plazaratu genuen. Ordutik, euskal gehiengo sindikalak prozesuarekin bat egiteko eta hau bultzatzeko prestutasuna azaldu du.

Gauzak horrela, apirilaren 23an Gasteizen elkartu ginen berriz 200 emakume* feministatik gora, asanblada nazional ireki batetan. Bertan, gure aldarrikapen taularen oinarriak berretsiz gain grebaren ezaugarritzeaz hausnartu genuen egun osoko lan saio batetan. Asanblada nazional horretan erabakitakoarekin beraz aurrera goaz.

Zergatik jotzen dugu zuengana?

Esan bezala, gure anbizioa herri akordio edo akordio sozial bat osatzea da. Horretarako, Euskal Herriko eragile soziosindikalen aliantza, laguntza eta elkarlana behar dugu.

Beraz, zer eskatzen dugu?

Prozesuarekin bat egitea eta hortaz, akordio horren parte izatea. Horretarako, MFtik sortu ditugun aldarrikapenekin batera, zuen ekarpenak egitea nahi dugu, DENON herri akordio bat lortzeko eta horrekin euskal eta nafar gobernuei interpelazioa egiteko. Herri akordio horren txapela, zaintza eskubide kolektiboa izango da.

Aldarrikapen horiekin greba orokor feminista deituko dugu, gure eskaerek oihartzuna izan dezaten.

Gerora, (grebaren ostean) negoziaketa fase bat irudikatzen dugu, aldarrikapen horiek benetan materializatu nahi ditugulako: hau da, HERRI HITZARMEN bat edo batzuk egin nahi ditugu. Epe ertain luzeko ibilbide bat abiatu nahi dugu eta gatazka honi HERRI bezala erantzutea da gure anbizioa.

Irailtik aurrera beraz, gutasun hori irudikatzen hasi nahi dugu bai grebara begira baina baita ere horren osteko prozesu guztiari begira ere.